

HUHEZIKo talde batek bilera egin du EITBko zuzendaritza talde berriarekin

2009/12/23

Abenduaren 23an, HUHEZI fakultateko talde bat Bilbon izan da, Euskal Irrati-Telebista taldearen egoitza nagusian. HUHEZIn partetik **Aitor Zuberogoitia**, **Onintza Belategi** eta **Joxe Aranzabal** izan dira, hirurak Ikus-entzunezko Komunikazioa karrerakoak. EITBren partetik, berriz, **Alex Aranzabal**, EITBko Garapen zuzendaria.

Aurrerantzean Alex Aranzabal bera arduratuko denez unibertsitateekiko harremanez, gaurko bilera batez ere izan da azaltzeko orain arte zertan gauzatu diren erakunde bien arteko harremanak: EITBko zenbait profesionalak HUHEZIn emandako eskolak, fakultateko ikasleek EITBn egindako praktikak eta karrera amaierako proiektuak, etab.

Bileraren ostean Alex Aranzabalek hartu ditu bisitariak eta erakutsi die EITBren Bilboko egoitza, beronen alderdirik esanguratsuenak.

